


Euskal AEko langabeen kopurua 3.400 pertsonatan jaitsi da eta langabezia-tasa % 7,1era jaitsi da 2024ko hirugarren hiruhilekoan

Landunak 4.500 gehiago dira eta landun egoiliarak 997.100, hiruhilekoko emaitzarik altuena 1985etik

Eustaten datuak kontuan hartuz, eta Euskal AEko lan-merkatuko 2024ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, aurreko hiruhilekoan baino 4.500 landun eta 3.400 langabe gutxiago daude. Langabeak 76.700 direla zenbatetsi da eta landunak 997.100 dira 2024ko hirugarren hiruhileko honetan, hau da, hiruhilekoko emaitzarik handiena 1985etik.

Euskal AEko langabezia-tasa % 7,1ean da, 2024ko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko lau hamarren gutxiago. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa % 56,5 izan da 2024ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurralde historikoka, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 3.900 landun gehiago daude, Gipuzkoan 2.500 gehiago eta Araban 2.000 landun gutxiago. Hiriburuei dagokionez, Bilbon 2.200 pertsonatan igo da okupazioa, Donostian 600 pertsonatan eta Gasteizen 3.000 pertsonatan jaitsi da.

Okupazioaren hazkundera gizonen artean gertatu da (+6.100); emakumeen artean, berriz, 1.600 gutxiago dira. Nazionalitateari dagokionez, atzerriko nazionalitatea duten pertsona okupatuak 3.800 gehiago dira (+%4,2), eta nazionalitate espainiarra dutenak, berriz, 700 gehiago (+%0,1).

Okupazioak gora egin du sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik

Euskal AEko biztanleria landunak gora egin du zerbitzuetan 3.200 pertsonatan (+%0,4), 1.300 pertsonatan eraikuntzan (+%2,4) eta industrian 700 pertsonatan (+%0,4); lehen sektorean, ordea, behera egin du 700 pertsonatan (-% 7,4).

Okupazio-tasa, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona landunen ehuneko gisa kalkulatu adin horien guztizkoaren gainean, ehuneko bi hamarren igo da aurreko hiruhilekoaren aldean, % 71,1ean kokatuz. Tasa hori % 74,7ra igo zen gizonen artean, eta % 67,6ra jaitsen da emakumeen artean, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 3 hamarren gutxiago.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik altuena Espainiako nazionalitatea dutenen artean dago (% 73,1), aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 2 hamarren gehiago. Atzerriko nazionalitatea dutenen artean, berriz, puntu 1 egin du gora (% 56,9).

Lurralde historikoka, okupazio-tasarik altuena Gipuzkoak du (% 73,3), aurreko hiruhilekoan baino ehuneko bost hamarren gehiago; bigarrenik, Bizkaia dago (% 70,1), ehuneko 4 hamarren gehiago; azkenik, Araban, okupazio-tasa ehuneko puntu bat jaitsi da, % 69,8ra iritsi arte.

Soldatapekoen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonak 6.800 gehiago izan dira aurreko hiruhilekoaren aldean, eta 33.200 gehiago aurreko urtearen aldean.

Hamar etxetatik ia seik pertsona aktibo guztiak okupatuta ditu

2024ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 923.600 etxe inguru daudela zenbatetsi da, eta horietatik heren batek ez du pertsona aktiborik, aurreko hiruhilekoan baino 900 gehiago; hamar etxetatik ia seitan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, 200 familia gutxiago. Pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten familiak 27.200 dira, aurreko hiruhilekoan baino 1.100 gutxiago.

2024ko hirugarren hiruhilekoan % 7,1eko langabezia-tasa dago

Euskal AEn langabeak, hau da, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko hirugarren hiruhilekoan 76.700 direla zenbatetsi da, aurreko hiruhilekoan baino 3.400 gutxiago. Gizonezko langabeen kolektiboak 37.800 gizon hartzen ditu, 2.900 gutxiago. Emakumezko langabeena, berriz, 500 gutxiago izan da, eta 38.900 izan dira hiruhilekoan.

2024ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 7,1 da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu gutxiago. Gizonezkoen langabezia-tasa puntu erdi jaitsi da % 6,8ra arte, eta emakumezkoena % 7,6an mantendu da.

Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean 2.100 langabe gutxiago daude, eta 55.800 dira. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, 1.300 gutxiago dira, eta 20.900 langabe dira.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian 3.400 langabe gutxiago daude (44.400), eta langabezia-tasa ehuneko 0,6 puntu jaitsi da (% 8). Gipuzkoan % 5,3raino jaitsi da langabezia, ehuneko 0,3 puntu; guztira 19.000 langabe daude. Araban, 800 langabe gehiago daude (13.400), eta langabezia-tasa puntu erdi portzentual da (% 8,2).

Hiriburuei dagokienez, 1.200 langabe gutxiago daude Bilbon, 500 gutxiago Donostian eta 1.000 langabe gehiago Gasteizen, aurreko hiruhilekoaren aldean.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2024ko abuztuan Europar Batasun osoko langabezia-tasa desestazonalizatua % 5,9koa izan zen eta Espainiakoa % 11,3koa.

2023ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, landunen kopurua % 2 igo da eta langabezia-tasa sei hamarren jaitsi da

Azken urtean, 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, pertsona landunen kopurua % 2 igo da, 19.300 pertsona gehiago; zerbitzuen sektoreak 14.300 landun gehiago ekarri ditu, industriak 5.800 gehiago eta lehen sektoreak 200 gehiago, baina eraikuntzak 1.000 pertsonatan egin du atzera. Langabeei dagokienez, langabezia-tasa ehuneko sei hamarren jaitsi da (% 7,7tik % 7,1era); beraz, 4.500 pertsonak langabezian egoteari utzi diote Euskal AEn.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 96,9 okupatuta dago, NLEren irizpidearen arabera

Kalkuluen arabera, Euskal AEn 933.700 pertsona daude afiliatuta hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi diren eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonak, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatuta. Horietatik, % 96,9 okupatuak dira, BJAk erabiltzen dituen Lanaren Nazioarteko Erakundearen (NLE) irizpideen arabera, hau da, 904.800 pertsona.

BJAko langile okupatuen artean, 42.300 (% 4,2) ez daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 37 ez dago erregistratutako langabe gisa zenbatuta

Zenbatespenen arabera, Euskal AEn 89.600 langabe daude erregistratuta Lanbiden hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi diren pertsonak, eta inkesta egin zen unean Lanbiden erregistratuta zeuden erregistratutako langabezia-kategorietako batean. Horietatik, % 51,9 langabeak dira, NLEren definizioaren arabera. (46.500 pertsona). BJAko NLE langabeen artean, % 37 ez dago langabe gisa erregistratuta Lanbiden (28.400 pertsona), baina enplegu-eskatzaileen beste kategoria batzuetan ere erregistratuta egon daiteke.

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2024/III

	2024/III	2024/II	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.900,2	1.895,7	+4,5	0,2
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.073,8	1.072,8	+1,0	+0,1
Gizonak	559,8	556,5	+3,3	+0,6
Emakumeak	514,0	516,3	-2,3	-0,4
Araba/Álava	162,7	163,9	-1,2	-0,7
Bizkai	555,2	554,9	+0,3	+0,1
Gipuzkoa	355,8	354,0	+1,8	+0,5
Vitoria-Gasteiz	120,2	122,2	-2,0	-1,6
Bilbao	169,0	167,8	+1,2	+0,7
Donostia / San Sebastian	91,7	91,6	+0,1	+0,1
Beste udalerriak	692,9	691,2	+1,7	+0,2
Espainiarrak	957,7	959,2	-1,5	-0,2
Atzerriko nazionalitatea	116,1	113,6	+2,5	+2,2
BIZTANLERIA LANDUNA	997,1	992,6	+4,5	+0,5
Gizonak	521,9	515,8	+6,1	+1,2
Emakumeak	475,2	476,8	-1,6	-0,3
Araba/Álava	149,4	151,4	-2,0	-1,3
Bizkai	510,9	507,0	+3,9	+0,8
Gipuzkoa	336,8	334,3	+2,5	+0,7
Vitoria-Gasteiz	109,5	112,5	-3,0	-2,7
Bilbao	154,3	152,1	+2,2	+1,4
Donostia / San Sebastian	86,3	85,7	+0,6	+0,7
Beste udalerriak	646,9	642,4	+4,5	+0,7
Espainiarrak	901,9	901,2	+0,7	+0,1
Atzerriko nazionalitatea	95,2	91,4	+3,8	+4,2
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	8,8	9,5	-0,7	-7,4
Industria	200,2	199,5	+0,7	+0,4
Erakuntza	56,2	54,9	+1,3	+2,4
Zerbitzuak	731,9	728,7	+3,2	+0,4
Soldatuko	823,7	817,4	+6,3	+0,8
- Lan-kontratu mugagabeekin	658,0	651,2	+6,8	+1,0
- - Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	165,6	166,1	-0,5	-0,3
Soldatarik gabeak	173,4	175,3	-1,9	-1,1
BIZTANLERIA LANGABEA	76,7	80,1	-3,4	-4,2
Gizonak	37,8	40,7	-2,9	-7,1
Emakumeak	38,9	39,4	-0,5	-1,3
16 - 24 urte	8,1	9,4	-1,3	-13,8
25 - 44 urte	33,5	34,8	-1,3	-3,7
45 urte eta gehiago	35,1	35,9	-0,8	-2,2
Araba/Álava	13,4	12,6	+0,8	+6,3
Bizkai	44,4	47,8	-3,4	-7,1
Gipuzkoa	19,0	19,7	-0,7	-3,6
Vitoria-Gasteiz	10,7	9,7	+1,0	+10,3
Bilbao	14,6	15,8	-1,2	-7,6
Donostia / San Sebastian	5,3	5,8	-0,5	-8,6
Beste udalerriak	46,0	48,8	-2,8	-5,7
Espainiarrak	55,8	57,9	-2,1	-3,6
Atzerriko nazionalitatea	20,9	22,2	-1,3	-5,9
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	826,4	823,0	+3,4	+0,4
ETXEGUNEAK	923,6	922,1	+1,5	+0,2
Pertsona aktiboekiko familia-etxeak	613,7	613,1	+0,6	+0,1
- Denak okupatuak	547,2	547,4	-0,2	-0,0
- Denak langabeak	27,2	28,3	-1,1	-3,9
Pertsona aktiborik gabeko familia-etxeak	309,9	309,0	+0,9	+0,3

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarriaren oinarri tekiko populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean

Data 2024ko Urriaren 17a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. Tasa nagusiak. 2024/III

	2024/III	2024/II	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,5	56,6	-0,1
Gizonak	61,4	61,2	+0,2
Emakumeak	52,0	52,3	-0,3
Araba/Álava	57,4	57,9	-0,5
Bizkaia	55,7	55,8	-0,1
Gipuzkoa	57,4	57,3	+0,1
Vitoria-Gasteiz	56,5	57,5	-1,0
Bilbao	56,7	56,2	+0,5
Donostia / San Sebastian	58,1	58,2	-0,1
Beste udalerriak	56,3	56,3	+0,0
Espainiarrak	55,4	55,6	-0,2
Atzerriko nazionalitatea	67,2	67,0	+0,2
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	71,1	70,9	+0,2
Gizonak	74,7	73,9	+0,8
Emakumeak	67,6	67,9	-0,3
Araba/Álava	69,8	70,8	-1,0
Bizkaia	70,1	69,7	+0,4
Gipuzkoa	73,3	72,8	+0,5
Vitoria-Gasteiz	68,4	70,3	-1,9
Bilbao	70,5	69,3	+1,2
Donostia / San Sebastian	75,0	74,8	+0,2
Beste udalerriak	71,3	70,9	+0,4
Espainiarrak	73,1	72,9	+0,2
Atzerriko nazionalitatea	56,9	55,9	+1,0
LANGABEZIA TASA	7,1	7,5	-0,4
Gizonak	6,8	7,3	-0,5
Emakumeak	7,6	7,6	+0,0
16 - 24 urte	12,1	13,6	-1,5
25 - 44 urte	7,8	8,2	-0,4
45 urte eta gehiago	6,1	6,2	-0,1
Araba/Álava	8,2	7,7	+0,5
Bizkaia	8,0	8,6	-0,6
Gipuzkoa	5,3	5,6	-0,3
Vitoria-Gasteiz	8,9	8,0	+0,9
Bilbao	8,7	9,4	-0,7
Donostia / San Sebastian	5,8	6,4	-0,6
Beste udalerriak	6,6	7,1	-0,5
Espainiarrak	5,8	6,0	-0,2
Atzerriko nazionalitatea	18,0	19,5	-1,5
INAKTIBOTASUN TASA	43,5	43,4	+0,1

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aldakuntza aurreko hiru hilabetearen aldean

p.p. = Aldea portzentajeazko puntutan

Data 2024ko Urriaren 17a

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62